

Gipuzkoa, mon amour

Edo Gipuzkoa *not in my backyard*. Duela urte batzuk, bertso-paper satirikoak osatu zituzten arabar bertsolariek Bertso Eguneko afarirako. Gipuzkoa Arabatik zelan ikusten zen, eta arabarren erantzuna: euskal lurralde euskaldunena, abertzaleena, aurrerakoiena eta, batez ere, orekatuena politikoki, biztanle-banaketan eta abar. Bertso haietan, giputzak deitoratzen zuen Araba erdal-duna, eta amesten Euskal Herria osoa Gipuzkoa bezalakoa izatea. Arabarrak gogorarazten zion Euskal Herri osoa Gipuzkoa balitz ez litzatekeela Euskal Herria izango.

Azkenaldian ikusi dugu Markel Olano Martin Ugalde Kultur Parkean hizlari, eta Eneko Goia hautagai jeltzalea *ZuZem*. Euskaingintza lobbya da Gipuzkoan. Gutxi ala asko, politikari giputzek beharrezko dute euskarazko hedabideen arreta. Gainontzekoetan, ghettotik atera barik jarraitzen dugu, gehienez ere Kultura edo Euskara sailetako arduradunak elkarriketatzen.

Eta bestelako gaietan? Bilboko exilio arrosa aipatzen duten homosexual askok azpimarratzen dituzte Orereta bezalako herri aurrerakoi eta irekiak. Eskuinak nekez aurkituko du Pasaia baino herri zailagorik. 30etik gorako bataiatu gabeko



DANI BLANCO

bakarrak hirietan geundelako aurreiritzia oiartzuar batek deuseztu zidan. Eta gero Usurbil dator (eta hor ere, Gipuzkoa ezin libratu partitokrazia hispanotik. Amets Arzallusek aipatzen zidan Ipar-Hegoko kultura politiko desberdina, zelan iristen den alderdiekiko morrontza AHT edo zaborra biltzeari buruzko iritzietaraino. Bidenabar, zer-nolako lezioa Iparraldeko hautetsiek, Aurore Martinekin hasi eta jazarritako beste gazteenganaino).

Ametsetako Euskal Herria zaigu askori Usurbildik hasi eta Iparraldeko hautetsien jarrera. Inposatutako “ezinbesteko” konponbideetatik eztabaida eta herritarren parte-hartzera, demokrazia zuzena eta gure herri eredia laztantzen duen egitasmoa irudikatzen dugu.

Baina gero Artigaseko Zabalgarbiz akordaten naiz, Castejon eta Boroako zentratez. Eta pentsatzen dut, Zubietako erraustegiaren mehatxurik ezean, atez atekoa sortuko ote zen. Zornotzarren borroka ezin duinagoak ez zuten Boroako zentrala eragotzi. Norbaitek esango du, “aizue, zuen arazoak zuek konpondu ezin eta guregatik kritikatu?”. Agian inbidia hutsa da, Usurbilek bidea erakutsi duelako, baina berandu askorentzat. Agian UPDk dauka arrazoi, eta aldundiak desagertzeko ueña da. Probintziak gainditu eta herri bezala pentsatzeko. ■



Agian UPDk dauka
arrazoi, eta aldundiak
desagertzeko ueña da.

Probintziak gainditu
eta herri bezala
pentsatzeko



TXANDAN

Amatiño



Azken berrogei urteotan zenbaiten politikajauziak hizkuntza-aldaketak baino handiagoak izan dira. Aipurik egin beharrik gabe, edonork du gogoan ezker-eskuin muturrez mutur pasatu denik, edota abertzale sutsu izatetik espainiar nazionalista izatera igaro denik.

Ez dira horrenbeste hizkuntza arloan egindako jauzi mortalak, hizkuntzari politikari baino atxikimendu irakunkorragoa balerio legez, edota euskararen apostuetan errotutako ahaleginak alderdiei dagozkien demetan aritutakoak baino kementsuagoak bailiren.

Muturrez mutur

Hala ere, ezagutu badazagut kazetariren bat, gaztelaniaz ere lan egin zezan eskatu zion zuzendaria traidoretzat jo ostean, bizitza profesional guztia gaztelaniaz egin duenik. Ezagutzen dudana bezala, euskararen defentsan “faxistak” izan behar genuela esan zidan arren—duela 35 urte eta Durangoko Azokan—, orain barra-barra—eta alderdiren baten mesedetan—gaztelaniaz idazten duen idazlerik.

Arazoa ez da euskaraz ala gaztelaniaz idatzi behar ote duen idazleak, kazetariak edota *sursumcordak*. Kontua da ezin dela ezertan ere “faxista” izan. Ez inoren kontra, baina ezta norberaren alde ere. ■